



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko apirilaren 17a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Deskribapen orokorra (4. or.).

II.1. Kontratuaren funtsezko datuak (4. or.).

II.2. Esleipen prozesuari buruzko gai batzuk. (7. or.).

III. Helburua eta norainokoa (11. or.).

IV. Ondorioak eta gomendioak (12. or.).

IV.1. Nafarroako Gobernuaren 2014ko otsailaren 19ko erabakiari dagokionez (12. or.).

IV.2. Esleipen-prozedurari dagokionez (12. or.).

IV.3. Esleipenari dagokionez (13. or.).

1. eranskina. Esleipen irizpideen balorazioa (14. or.).

2. eranskina. Nafarroako Gobernuaren ordezkariaren prentsaurrekoaren transkripzioa (15. or.).

3. eranskina. Nafarroako Gobernuaren 2014ko otsailaren 19ko erabakia (16. or.).

4. eranskina. Kontratazio mahaiaren 2014ko otsailaren 10eko bilkuraren akta (18. or.).

5. eranskina. Lanbide elkargoen txostenei buruzko ondorio nagusiak (19. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (20. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (22. or.).

I. SARRERA

2014ko martxoaren 31n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ekimenez, Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea txosten bat egin dezan "Nafarroako Ubidea handitzeko behar diren obren esleipen prozesuari buruz, otsailaren 10ean geldiarazi baitzen".

Gure ustez, egindako eskariak zehaztapen bat behar du, zeren eta ezin baita Ubidearen zabalpenari buruz hitz egin –obra hori CANASA enpresak egin zuen, hain zuzen ere Nafarroak kapitalaren % 40 duen enpresak–, baizik eta Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenari buruz.

Eskerrak ematen dizkiegu INTIAko eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

II. DESKRIBAPEN OROKORRA

Aurreikusita zegoen "Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremua" bi fasetan egitea: lehenengo Izarbeibartik Aragoi ibaira, eta bigarrena Aragoi ibaitik Ablitasera. Lehenengo fasea amaitu da: bere jarduketa-eremuan hasiera batean bi eremuetarako kalkulaturako 50.000 hektarea baino gehiagotatik 22.500 hektarea hartzen ditu.

Bigarren fasea egin gabe, zabalpena hasi da, Arga eta Ega ibaietako aldeetara (Lizarra inguruetan): 15.000 hektarea inguru dira.

Kontratua da "Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuaren 1. fasearen zabalpeneko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko obra publikoen esleipena egiteko, prozedura irekiz lizitatuta, eta eskaintzarik aldekoenaren aldeko esleipena eginez".

Azpiegituraren finantzaketa "itzaleko bidesaria" izeneko sistema erabiliz egiten da.

Honakoa da kontratu horretarako oinarritzko esparru juridikoa:

- Azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legea, Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenari buruzkoa.
- 1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, nekazaritza azpiegiturei buruzkoa.
- 7/1999 Foru Legea, martxoaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitateko ureztaketa lanean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, Nafarroako kontratu publikoei buruzkoa.

II.1. KONTRATUAREN FUNTSEZKO DATUAK

Kontratazio organoa Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua (INTIA, S.A.) da, eta 30 urteko iraupena duen kontratua da.

Kontratuaren xedeak jasotzen du ureztatze-sektore edo eremu bakoitza eraikitzeke proiektuen idazketa, obrak egitea eta obrak ustiatzea (eragiketa, mantentzea, zaintzea eta berrezartzea), harik eta aurreko obretarako kontratua amaitu arte.

Horrenbestez, kontratu horretatik kanpo gelditzen dira lur-zati desberdinetan egiten diren obrak.

Azpiegitararako kalkulatu den balioak ez ditu prezioen berrikuspenak jasotzen, eta honakoa da:

Exekuzio materialaren aurrekontua	105.971.230,00
% 15 gastu orokorrak eta industria onura	15.895.684,50
Kontratuaren balio zenbatetsia	121.866.914,50
BEZa, % 21	25.592.052,05
Kontrataren exekuziorako aurrekontua	147.458.966,55
% 7 sozietate emakidadunaren konturako gastuak (BEZ barne)	10.322.127,66
Desjabetzeak	586.608,00
Aurreikusten den inbertsioaren aurrekontua, guztira	158.367.702,20

*Kontzesio prozesuko kudeaketa orokorrari dagozkio, eraikuntza- eta ustiaketa-aldietan, bai eta obraren ustiaketa-aren arloko zuzendaritzari eta laguntzari ere.

Kontratuaren exekuzioa, fase guztietan, sozietate emakidadunaren arrisku eta menturara garatuko da. Bereziki, sozietateak eraikuntzaren eta ustiaketaren arriskua hartzen du. Azken hori honakoetan zehaztuta dago: obraren eskuragarritasunarekin (kudeaketaren kalitatea), ustiaketaren kostuen bilakaerarekin eta uraren kontsumoarekin lotutakoak.

Halaber, bere gain hartzen ditu prezioen inflazioaren bilakaeratik heldu diren arriskuan, ezertan kendu gabe "Guztizko ordainketa bakarra" (RuT) gaurkotzeko eskubidea, bai eta finantza-kostuen bilakaeraren arriskua ere.

Baldintza-orrien 19 klausulak arautzen du zein kasutan berrezarri beharko duen sozietate emaileak kontratuaren oreka ekonomikoa; honakoak dira, batez ere: sozietate emaileak onetsitako obren zenbatekoa desberdina denean; emakidaren ekonomia hausten duten indar nagusiko arrazoiak kausak daudenean; jarduketa-eremua aldatzen denean, eta uraren kontsumoa txikiagoa denean, indar nagusiko arrazoiak tarteko.

Halaber, aurreikusten du kontratua berrerekatzea sozietate emailearen baldintza finantzarioak aldatzen diren kasu batzuetan, bai sozietatea horren alde, bai kontzesiodunaren alde, aldaketamotaren arabera.

Baldintza-orrietan, aldean eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira. Aipatutakoen artean, nabarmendu nahi dugu, kontrol neurri gisa, kontzesiodunak honakoa egin behar duela: "*Sozietate kontzesiodunak izendatutako ordezkariaren eginkizunak errespetatzea; eginkizun horiek Gobernuaren ordezkariak dauzkan berak izanen dira. Sozietate kontzesiodunaren Administrazio Kontseiluaren eta batzorde exekutiboaren bileretan parte hartuko du, ahotsarekin eta botorik gabe*".

Enpresa kontzesiodunak inbertsioa berreskuratuko du honako kanonak kobratuz:

a) INTIAk (Nafarroako Gobernu) ordaindutakoak.

- Kalitate-kanona. Hektareako ordaintzen da, eta zenbateko desberdinak ezartzen dira eremuaren arabera. Baldintza-orrietan hektareako 622 euroko batez besteko zenbatekoa ezartzen da, eta kalitate-kanonaren urteko zenbatekoa 9.498.532 eurokoa da.

- Ur bolumenaren arabeko kanona. Ur kontsumoaren arabera ordaintzen da. Orrietan 0,02929 euroko zenbatekoa ezartzen da metro kubiko ur bakoitzeko. Eremu bakoitzerako kalkulaturako batez besteko kontsumoen arabeko tarifa horrek urtean 1.875.647 euro egiten du.

b) Ureztatzaileek ordaindu beharrekoa.

- Ustiapen-kanona. Eremu bakoitzean hektarea bakoitzeko kopuru bat ezartzen da, eta hartan ez da onartzen lizitazio-bajarik. Urteko zenbatekoa 506.379 eurokoa da.

Horrek esan nahi du lizitaziorako erabiltzen den urteko kopurua honakoa dela:

Gutzizko ordainketa bakarra (RuT)	AKPO
Azpiegituraren kudeaketaren kalitate kanona (AKKK)	9.498.532
Ur bolumenaren kanona (UBK)	1.875.647
INTIAk ordaindu beharreko gutzizkoa, honaino	11.374.179
Ureztatzaileek ordaindu beharreko ustiapen-kanona (UK) (ez du bajarik onartzen)	506.379
Kontzesiodunak jaso beharreko gutzizko ordainketa bakarra	11.880.558

Tarifak KPlaren arabera gaurkotzen dira, eta zerbitzuaren kalitatearen arabera kenkariekin doitzen dira. Kontsumitutako uraren kasuan, tarifa bakarra kontsumo motaren arabera gutxitzen da, eta bolumen batetik aurrera eskaintako zenbatekoaren ehuneko bat izatera iristen da.

Esleipenerako irizpideak baldintza administratibo partikularren orriko 32. klausulan jasota daude.

A. Balio-judizioaren arabera ebaluatzeak diren irizpideak.

- Eraikuntza-proiektuen eta obren exekuzioaren analisiari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Obren ustiaketaren analisiari buruzko dokumentazio teknikoa.
- Sozietate emakidadunak funtsak lortzeko konpromiso-maila.

B. Formula matematikoen arabera edo modu objektiboan lortu beharreko irizpide ebaluagarriak.

- Proposamen ekonomikoa.

Orrietan honakoa eduki da aintzat kontratuaren exekuzioan gutxieneko tekniko bat bermatzeari begira. *“Formula matematikoen arabera ebaluatzeak diren irizpideei dagokien gutun-azala (3. gutun-azala) irekitzeari ekin ahal izateko, beharrezkoa izanen da balio-judizioaren arabera ebaluatzeak diren irizpideetan lor daitekeen puntuazio handienaren gutxienez ere % 50 lortu”.*

Honakoa da irizpide horien ponderazioa:

Esleipen-irizpideak	Gehieneko puntuazioa
Balio-judizioen arabera ebaluatzeak diren irizpideak	300
I. Obren exekuzioari buruzko dokumentazio teknikoa	70
II. Obren ustiaketari buruzko dokumentazio teknikoa	130
III. Sozietate emakidadunak funtsak lortzeko konpromiso-mailari buruzko dokumentazioa	100
Formula matematikoen arabera ebaluatzeak diren irizpideak	700
IV.- Proposamen ekonomikoa	700
Guztira	1.000

I. eranskinean, irizpide horiek hobeki xehakaturik ageri dira, gehieneko puntuazioa adierazita.

Eskaintza ekonomikoa honela puntuatzen da:

- Eskain daitezkeen "Gutzizko ordainketa bakarraren" azpi-osagaiak direla-eta eskain daitezkeen gehieneko bajaren (GB) balio absolutuko portzentajeari zazpiehun puntu (700) emanen zaizkio.

- Proposatutako baja zero (0) den eskaintza guztiei zero (0) puntu emanen zaizkie.

- Eskain daitezkeen guztizko ordainketa bakarraren azpi-osagaiak direla eta gehieneko bajaran portzentajeaz beherako baja-portzentajea jasotzen duten gainerako proposamenei, honako formularen arabera puntuak emanen zaizkie:

$$PE = 700 \times (B/BM)^{1/3}$$

Lizitaziora bi partzuergo aurkeztu ziren. Bata Acciona eta Iridium sozietateek osatua eta bestea OHL eta Sociedad General Aguas de Barcelona (SGAB) sozietateek osatua.

2014ko urtarrilaren 15ean, kontratazio-mahaiaren lehenengo bilera egin zen. INTIAko teknika-riak ziren mahaiburuak eta lau mahaikidek eta Kontratazio Batzarraren ordezkari zen bosgarren mahaikide batek osatzen zuten mahaiak. Mahaiaren jarduketa Kontratuei buruzko Foru Legeko 59. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita dago, eta, horrenbestez, ez da sozietate publikoei exijitu beharreko beharkizuna. Hala eta guztiz ere, kontratazio horren orriek haren jarduketa aurreikusi dute prozedurari berme gehiago emate aldera.

II.2. ESLEIPEN PROZESUARI BURUZKO GAI BATZUK.

Atal honetan, zenbait gai eta jarduketa laburbiltzen ditugu, esleipen-prozesuan parte hartutakoekin: oinarritzat jotzen ditugu haren garapena eta Kontuen Ganberak lortutako ondorioak ulertzeko.

Orrietako 33.2 klausulan aurreikusitakoaren arabera –bat dator Kontratuei buruzko Foru Legeko 61.3 artikularekin, non honakoa esaten baita: "*Kontratazio mahaiak, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatzen ahalko ditu, kontratuaren xedearekin zerikusia dutenak*"–, 2014ko urtarrilaren 22an, lehiaketara aurkeztutako eskaintzen 2. gutun-azalean jasotako dokumentazioari erreparatuta, funtsak lortzeko konpromiso mailari buruzko dokumentazioa (2.2 gutun-azala) eta plan ekonomiko finantzarioa ebaluatzeko laguntza teknikoa arautuko duten baldintza juridiko, ekonomiko eta teknikoak onetsi ziren.

2014ko urtarrilaren 27an, PrinceWaterHouseCoopers enpresari esleitu zitzaion kontratua, 45.700 euroan, eskaintzarik aldekoena izan baitzen.

2014ko otsailaren 10ean, 2. gutun-azalari (alderdi teknikoak eta funtsak lortzeko konpromiso-maila) buruzko emaitzak jakitera emateko ekitaldi publikoa egin aurretik eta 3. gutun-azala (eskaintza ekonomikoa) ireki aurretik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak prentsaurreko bat eman zuen non honakoa eman zuen jakitera: "*erabakitze-prozesuen kontrol- eta berme-mekanismoak areagotzeko eta gardentasun handiagoa lortzeko, erabakiko da ezen 12,5 milioitik gorako kontratazioetan beharrezkoa izanen dela kasuko lanbide-elkargoen txosten bat izatea, eta hau izaki, agian, legegintzaldiko obrarik garrantzitsuena, ez dirudi oso logikoa denik neurri horretatik salbuetsita egotea; hori dela eta, kontratazio-mahaiari eskatzen zaio aukera hori aintzat hartu eta azter dezan*". 2. eranskinean, prentsaurrekoaren edukia sartzan da, Nafarroako webgunetik lortua. Otsailaren 19an, Nafarroako Gobernuak horri buruzko erabaki bat onetsi zuen, zeina osorik transkribatu baitugu 3. eranskinean.

Erabaki horri buruzko espedienteak daukan dokumentu bakarra erabakia bera da. Hori dela eta, jo dezakegu otsailaren 10eko prentsaurrekoaren edukia lanerako eta azterketarako dokumentu bat dela.

Prentsaurrekoan lanbide-elkargoari buruz egin zen berriazko aipamen hori ez zen gero erabakian jaso, nahiz eta aitzinsolasean aipatzen den.

Erabakia ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Argitalpen hori ez da aginduzkoa.

Otsailaren 10ean bertan, aurreikusita zegoen bezala eta lizitatzaileri araudian ezarritako bi-deetatik jakinarazi zitzaizen bezala, mahaiak irakurri egin zituen lizitatzailerek alderdi teknikoetan lortutako puntuazioak; honakoak dira hain zuzen: Acciona-Iridium, 239,25 puntu; OHL-SGAB partzuergoa, 279 puntu. Eta honako erabakia hartu zuen: (4. eranskinean, bilkuraren akta transkribatu dugu):

“Jarraitutako prozedura aurkeztea Nekazaritza Ingeniariei zein Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Lanbide Elkargoei eta Ekonomialarien Elkargoari, Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren bitartez, jakinarazitako irizpide orokorraren arabera eta klausula administratibo partikularren orriko 33.2 klausulan ezarritakoari jarraituz”.

Lanbide elkargoen txostenak jasota, 2014ko martxoaren 7an, Mahaiak honakoa erabaki zuen:

“Lanbide elkargoen txostenak, 2. aktako puntuazioak egituratzen dituztenak, igortzea, emakidari buruzko lehiaketa arautzen duen klausula administratibo partikularren orriko 33.1 klausulan ezarritakoari jarraituz, Jesús María Echeverría Azcona jaunari, Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. merkataritza-enpresako zuzendari kudeatzailea eta legezko ordezkaria den aldetik, egokiak badira onets ditzan”.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu orriko 33.1 klausulak honakoa ezartzen duela: *“Kontratazio mahaiak 2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa ebaluatuko du, klausula administratibo partikularren orri honetako IV. eranskinean azaldutako eskaintzen ebaluazio-irizpideak aplikatuz. Ebaluazio hori kontratazio-organoari igorriko zaio gero, onets dezan.*

2014ko martxoaren 20an, INTIA, S.A.ko kontratazio-organoak erabaki bat hartu zuen, eta kontratazio-mahaiari igorri zion:

“Onestea kontratazio-mahaiak 2. gutun-azalean jasotako dokumentazioari buruz egindako ebaluazioa, klausula administratibo partikularren orri honetako IV. eranskinean azaldutako ebaluazio-irizpideak aplikatuz, betiere klausula administratibo partikularren orriko 33.1 klausulan ezarritakoari jarraituz, behin lanbide elkargoei egindako txostenak aztertuta; izan ere, txosten horiek kontratazio-mahaiak emandako puntuazioak, 2. aktan jasotakoak, sendetsi dituzte”.

Gero, 2014ko martxoaren 26an, Mahaiak proposamen ekonomikoak ireki eta honakoa erabaki zuen:

“Hala eta guztiz ere, aztertzeko dago 3. gutun-azalean exijitutako dokumentazioa –hau da, eskaintza ekonomikoaren laburpena, baldintza administratibo partikularren orriko VII. eranskinean arabera, eta lizitazioa aurkeztutako kontratuaren plan ekonomiko-finantzarioa–; hori guztia baldintza administratibo partikularren orriko IV. eranskineko irizpideei jarraituz (esleipen-irizpideen balorazioa) eta, bereziki, “Eskaintzak ez onartzeko kasuak” izeneko D letrari jarraituz. Aurreko guztia, gero Ekonomialarien Elkargoari aurkeztu behar zaio, txostena eman dezan, Nafarroako Gobernuak 2014ko otsailaren 18an hartutako erabakiari eta klausula administratibo partikularren orriko 33.2 klausulari jarraituz.

Azkenik, 2014ko apirilaren 7an, Mahaiak, aztertu ondoren, bai kontratuko plan ekonomiko-finantzarioaren zuzentasuna eta osotasuna, bai finantza-entitateen finantzaketarako eskaintzekin batera doazen proposamenetan aurkeztutako kontratuko plan ekonomiko-finantzarioarekiko koherentzia, bai eta PriceWaterhouseCoopersen txostena ere, plan ekonomiko-finantzarioaren zuzentasunari eta osotasunari buruzkoa, erabaki zuen atal honi buruzko puntuazioa ematea; gero puntuazio hori kontratazio-organoari igorri zion eta proposatu zuen Nafarroako Ubideko 1. faseko zabalpeneko ureztatu beharreko eremuaren interes orokorreko azpiegituren eraikuntzarako eta ustiaketarako kontratua esleitzea, obra publikoen emakida-kontratu baten bitartez, OHL Construcción eta SGAB enpresek osatutako partzuergoari.

Honakoak izan ziren INTIAk eta ureztatzaileen erkidegoek ordaindu beharreko kanonari buruzko eskaintza ekonomikoak:

Guztizko ordainketa bakarra	AKPO	Guztizko ordainketa bakarra: OHL-AGBAR-en eskaintza	Guztizko ordainketa bakarra: Acciona-Iridium-en eskaintza
Azpiegituren kudeaketaren kalitate-kanona (AKKK)	9.498.532,00	7.123.893,00	8.368.206,69
Ur bolumenaren kanona (UBK)	1.875.647,00	1.406.933,00	1.652.445,01
INTIAk ordaindu beharreko guztizkoa, honaino	11.374.179,00	8.530.826,00	10.020.651,70
Ureztatzaileek ordaindu beharreko ustiapen-kanona (UK) (ez du bajarik onartzen)	506.379,00	506.379,00	506.379,00
Kontzesiodunak jaso beharreko guztizko ordainketa bakarra	11.880.558,00	9.037.205,00	10.527.030,70

Horrek ehuneko 25eko eta ehuneko 11,9ko baja islatzen ditu, hurrenez hurren.

Ur kontsumoari, inflazioari eta beherapen-tasei buruzko kalkuluen arabera, eskaintza irabazleak honako zenbatekoak ageri ditu:

	(euroak, milioitan)	
	Euro korrontekak, BEZik gabe	Euro konstantekak, BEZik gabe
Ur bolumenaren kanona	60	25,7
Kalitate-kanona	307,2	133
Ustiapen-kanona.	21,8	9,4
Proiektuaren itzulketaren barne tasa		% 10,18
Akziodunentzako itzulketaren barne tasa		% 9,6

Honakoak izan dira bi entitate lizitatzailerek lortutako amaierako puntuazioak

Dokumentazio teknikoa	Acciona-Iridium partzuergoa	OHL-SGAB partzuergoa
Obren exekuzioa (gehienez ere, 70 puntu). 2.1.1 gutun-azala.	56,50	59,25
Obren ustiapena (gehienez ere, 130 puntu). 2.1.2 gutun-azala.	110,75	120,75
Emakidadunak funtsak lortzeko konpromiso maila (gehienez ere, 100 puntu). 2.2 gutun-azala.	72,00	99,00
Guztira (gehienez, 300 puntu)	239,25	279,00
Beharapen gisa guztizko ordainketa bakarrari buruz eskainitako puntuazioa, proposamen ekonomikoan jasotakoa (gehienez ere, 700 puntu)	546,55	700,00
Puntuazioa, guztira	785,80	979,00

Txostenak egiteagatik ordaindutako kopurua, BEZa barne, honakoa izan da:

Lanbide elkargoei eskatutako txostenak

2. gutun-azaleko txostenak	
Ekonomialarien Elkargoa	4.235
Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargoa	5.445
Aragoiko, Nafarroako eta Euskadiko Nekazaritza Ingeniariei Elkargo Ofiziala	4.840
3. gutun-azaleko txostena	
Ekonomialarien Elkargoa	6.655
Elkargoen fakturak, guztira	21.175

Aholkularitza, guztira

Elkargoen fakturak, guztira	21.175
PWCren faktura	45.700
Kontratazio Mahaiaren aholkularitza-fakturen guztizkoa	66.875

Lanbide-elkargoen esleipenak zuzenean egin dira, honakoa adierazita: *"txostena, alde batera utzita elkargoko zein profesionalak idatzi duten, Elkargoak berak eginga behar du izan. Azken batean, elkargoaren txosten bat da, haren lehendakariak eta idazkariak sinatua. Elkargoak, txosteneko egileak aukeratzekoan, kontuan hartu behar du profesionalak inongo interesik ez izatea partzuergoak osatzen dituzten enpresa akziodunekin"*.

Zerbitzu horien prestazioan lehiarik ezin denez egon, lanbide elkargoetako bakoitzak aurkeztutako fakturak ordaindu dira.

Eskaintzak beren alderdi ekonomiko-finantzarioetan ebaluatzeko laguntza-lanen esleipena prozedura negoziatuaren bidez egin zen. Aurrekontua, BEZa barne, 66.550 eurokoa zen, eta irabazlea PriceWaterHouseCoopers izan zen, parte hartu zuten bostetatik eskaintzarik merkeena egin baitzuen, 45.700 eurokoa.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Txosten honen xedea da erantzuna ematea Parlamentuak egindako eskariari. Eskari hori honakoen azterketan finka daiteke:

- Nafarroako Gobernuaren 2014ko otsailaren 19ko erabakiaren eta kontratuaren esleipenean izanen duen eraginaren balorazioa.
- Nafarroako Ubideko 1. faseko zabalpeneko ureztatuko den eremuaren interes orokorreko azpiegituren eraikuntzarako eta ustiaketarako kontratua esleitzeko prozesua, obra publikoen emakidarako kontratu baten bitartez.

Txostenarekin batera doaz egindako lanetik atera diren gomendioak.

Lana egin da INTIA, S.A. sozietate publikoaren espedientean dagoen informazioa egiaztatuz. Halaber, Nafarroako Gobernuari 2014ko otsailaren 19ko erabakiari dagokion espedientea eskatu zaio.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Nafarroako Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, egindako lanetan atera ditugun ondorioak aurkezten ditugu, arestian aipatu ditugun helburuen arabera multzokatuta.

IV.1. NAFARROAKO GOBERNUAREN 2014ko OTSAILAREN 19ko ERABAKIARI DAGOKIONEZ.

Lehena. Kontratazio publikoaren arloko gardentasun neurri gisa, gomendatzen da kontratuak esleitzeko prozeduretan, kalkulaturako zenbatekoa 12,5 milioi eurotik gorakoa denean, berariaz bil dadila orrietan Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 61.3 artikuluan jasotako aurreikuspena. Gure ustez, kontratazio publikoaren arloko esparru indardunaren inongo eragin juridiko berritzaile ez du, zeren eta mugatzen baita gomendatzera Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean jada jasota dagoen zerbait (aipaturako 61.3 artikulua) eta, prozedura horretan, baldintza orrian bertan (33.2 klausula).

IV.2. ESLEIPEN-PROZEDURARI DAGOKIONEZ.

Bigarrena. Kontratazio-mahaiak organo kolegiatu eta teknikoak dira, zeinei Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeak zenbait eginkizun nagusi esleitzen baitizkie kontratazio prozeduretan (Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 61. artikulua). Zorroztasun, inpartzialtasun eta independetzia mailarik handiena exijitzen zaie; hori dela eta, uneoro haien jarduketa indartu beharra dago, hura zalantzan jar dezaketen kanpoko eraginak saihestuta.

Aipaturako 61. artikulua sozietate emakidadunari zuzenean aplikatzekoa ez bada ere, kontratazio-mahaia eratzeko erabakiz gero, ulertu beharra dago organo horren araubide juridikoari aplikatu beharko zaiola eta organo horrek hura bete beharko duela.

Hirugarrena. Kontratazio-mahaiak kanpoko txosten teknikoak eskatzearena Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean aurreikusitako ahalmen bat da, prozedura honetako orriek jada jaso egiten dutenak. Eskari hori egin beharra dago Mahaiaren ekimenez eta berak erabakita, beharrezkotzat jotzen duenean, funtzionamendurako daukan autonomiaren barruan.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago mahaia jada aukera horretaz baliatua zela, zeren eta eskaintzaren alderdi ekonomikoak baloratzeko kanpoko laguntza eskatu baitzuen.

Laugarrena. "Prozedura hau dela-eta azaldutako egitateen zerrendari begiratuta, ondorioztatzen da mahaiaren erabakia, zenbait lanbide elkargori txostenak eskatzeari dagokionez, hartu zela *"Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren bitartez, jakinarazitako irizpide orokorren arabera eta klausula administratibo partikularren orriko 33.2 klausulan ezarritakoari jarraituz"*.

Gure iritziz, gisa horretako gomendioak, Administrazioak emandakoak kontratazio-mahaiak jarduteko moduari buruz eta eskatu beharreko txostenei buruz, ez daude legedi indardunean jasota eta eragina izan dezakete organo tekniko kolegiatu horien funtzionamenduko autonomia.

Bosgarrena. Nafarroako Gobernuaren 2014ko otsailaren 19ko erabakiaren testuinguruan Administrazioak emandako kanpoko gomendio horri jarraitzearen ondorioz, prozedura honetako Kontratazio Mahaiak, 2. gutun-azalari guruzko emaitzak komunikatuko zirela eta proposamen ekonomikoak (3. gutun-azala) zabalduko zirela iragarrita zegoen egun berean, 2. gutun-azaleko emaitzak eman zituen jakitera, eta lizitatzailerei adierazi zien 3. gutun-azalaren irekitzea geroratu egiten zela, harik eta lanbide elkargoen txosten teknikoak jaso arte. Txosten horien xedea da *"INTIAk 2. gutun-azala baloratzeko jarraitutako prozedura ebaluatzea eta kalkulu bat egitea Kontratazio Mahaiak 2. gutun-azala baloratzeko jarraitutako irizpideei buruz; horren oinarria ez da arbitrarioa eta, horrenbestez, bere logika teknikoa dauka"*.

Hau da, une horretara arte jarraitutako prozedura aztertzen da. 5. eranskinen, txosten horien ondorio nagusiak aurkezten dira.

Gure ustez egokiagoa izanen zen txostenak eduki arte itzarotea balorazio teknikoak irakurtzera jo aurretik.

Seigarrena. Modu positiboan baloratzen dugu exekutiboak daukan borondatea, kontratu garrantzitsuak esleitzeko prozesuetan ahal den eta gardentasun handiena bilatzekoa, baina aukeraturakoa ez zaigu modurik egokiena iruditzen aurreikusitako helburua lortzeko. 2014. urtean 12,5 milioitik gorako esleipenik izan ez zenez, horixe da aurreikuspen hori aplikatu den espediente bakarra.

IV.3. ESLEIPENARI DAGOKIONEZ

Zazpigarrena. Esleipen-irizpideetan lehentasuna ematen zaio prezioari eta enpresa esleipendunaren finantzaketa-bermeari; alderdi horiek logikoak dira egungo egoera ekonomiko orokorrean.

Zortzigarrena. Eskaintza irabazleak emaitzarik onenak lortzen ditu alderdi teknikoetan eta baja handiena eskaintzen du alderdi ekonomikoan. Kontuan hartu beharra dago ezen atal teknikoan beharrezkoa zela puntuen erdia lortzea (150) hurrengo fasera pasatzeko, eta eskaintza ekonomikoak puntuatzeko orrietan aurreikusitako formula aplikatzerakoan, lortutako diferentzia 150 puntutik gorakoa dela. Horrenbestez, ondoriozta daiteke eskaintza ekonomikoa izan dela esleipenaren funtsezko faktorea.

Bederatzigarrena. Txostenak zuzenean esleitu zitzaizkien lanbide-elkargoei, eta PWCren txostenaren kasuan prozedura negoziatuaren bitartez (eskaintzarik merkeenera jota).

Hamargarrena. Esleipen horretan, garrantzi handiena baldintza ekonomikoei eman zaie. Eskaintza ekonomikoak baloratzeko orrietan aurreikusitako formularen aplikazioa erabakigarria da esleipena erabakitzeke. Mahaiak lanbide-elkargoei txostenak eskatzeak, horretan men eginez Gobernuak egindako gomendioari –alegia, oraindik ere onetsita ez zegoen erabaki bat aintzat hartzea; haren edukia hitzez hitz jasota zegoen jada orrietan–, ez du eraginik izan Mahaiaren erabakietan, baina egoera konplexuak eragin zitzaizkien.

Hamaikagarrena. Oro har, ondoriozta dezakegu kontratu hau esleitzeko jarraitu den prozedura kontratazio publikoaren arloko legedi indardunaren arabera izan dela, aurrez adierazitako berezitasunekin. Nolanahi ere, inguruabar horiek ez dute ezertan ere aldarazten esleipenaren amaierako emaitza, zeren eta lanbide elkargoei eskatutako txostenek alderdi guztietan sendesten baitituzte Kontratazio Mahaiak egindako jarduketeta eta balorazioa; izan ere, jarduketeta eta balorazio hori kezkatutzat, sendotzat eta orriko irizpideei egokitutakotzat jotzen dute.

Gure lanaren ondorioz, honakoa gomendatzen dugu:

- *Nafarroako Gobernuak 2014ko otsailaren 19ko erabakia berrazter dezan, zeren eta, aurrez adierazi bezala, gomendio huts bat denez, inongo eragin juridiko berritzailezik ez baitu kontratazioaren arloko egungo esparruaren aldean. Baldin eta Gobernuak uste badu gomendio hori egiazki neurri garrantzitsua dela kontratazioaren arloko gardentasuna hobetzeko, kontratuei buruzko foru legedian sartu beharko luke, egungo legea alderdi horri dagokionez aldatuko duen foru lege proiektu bat izapidetuz.*

- *Kontratazio mahaien independentzia indartze aldera, erabakiak modu autonomoan hartu behar dituzten organo tekniko kolegiatuak diren aldetik, kanpoko gomendioak saihestu behar direla, haiek jardun behar duten moduari dagokionez edo eskatu behar dituzten kanpoko txostenek dagokionez, zeren eta gomendio horiek eragina izan baitezakete mahai horien jarduketan nagusitu behar den independentzian.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. ESLEIPEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA

Esleipen irizpideak	Gehieneko puntuazioa
A. BALIO-JUDIZIOEN ARABERA EBALUATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK	300
A.I. Obren exekuzioari buruzko dokumentazio tekniko (2.1 gutun-azala)	70
A.I. a) Obra lizitzatzeko proiektuaren azterketa (2.1.1 gutun-azala)	35
A.I. b) Oroitidazki tekniko orokorra (2.1.1 gutun-azala)	35
A.II. Obren ustiaketari buruzko dokumentazio tekniko (2.1 gutun-azala)	130
A.II. a) Ustiaketaren aurreproiektua eta ustiaketari buruzko oroitidazki tekniko orokorra (2.1.2 gutun-azala)	100
A.II. b) Tele-kontrolari eta operazioari buruzko aurreproiektua (2.1.2 gutun-azala)	30
A.III. Sozietate emakidadunak funtsak lortzeko konpromiso-mailari buruzko dokumentazioa (2.2 gutun-azala)	100
A.III. a) Partzuergo lizitzailea osatzen duten akziodunen konpromiso, berme eta justifikazio maila, kapital soziala eta eskainitako gainerako baliabideak eratu, izenpetu eta eratzeko, eta kapital sozialaren ekarpena edo/eta beraiek jarritako baliabideak handitzeko, harik eta eskainitako ehunekoetara iritsi arte, aurreikusitakoaz gorako inbertsioen kasuetan.	35
A.III. b) Finantza-entitateen babes edo/eta konpromiso gutunen aurkezpena, akziodunen baliabide-ekarpenak bermatzekoak, edo finantza-entitateek exijitutako akziodunen babes finantzarioko kasuak.	10
A.III. c) Finantzaketaren hornitzaile diren finantza-entitateen konpromiso-maila, funtsak eskainitako termino eta baldintzetan jartzekoak, kontuan hartuz finantzaketa iturri desberdinak; lizitzaileak emakida-kontratuari buruz emandako dokumentazioari buruzko ezagutza-maila eta, bereziki, proposamen ekonomikoari buruzkoa, eta obra publikoa aurreikusitako terminoetan finantzatzeko konpromiso maila, baldi eta babestutako lizitzailea kontratuaren esleipendun gisa hautatzen bada; finantzaketa-prozesua eta negoziazioa zein unetan dauden, eta negoziazio hori zein epetan amaitutzat eman ahalko den, finantzaketa-itxiera emanaz, kontratua esleitzen den unetik aurrera.	35
A.III. d) Birfinantzaketa kasuen azterketa; hau da, zorraren birfinantzaketa akordioei eta epeei buruz aurkeztutako informazioaren azterketa, kasua bada, eta birfinantzaketa-arriskuaren mugaketa/esleipena.	5
A.III. f) Berme-maila eta justifikazioa, kontratua sinatzen den momentutik aurreikusitako finantzaketa ixten den unera arte emakidak obra publikoa finantzatzeko behar diren baliabideak edukitzeari buruzkoa.	15
B. FORMULA MATEMATIKOEN ARABERA EBALUATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK	700
B.I. Proposamen ekonomikoa: Eskainitako baja (portzentajearen) eskain daitezkeen gutuzko ordainketa bakarraren azpi-osagaiak direla-eta (3. gutun-azala)	700
Guztira	1.000

2. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN ORDEZKARIAREN PRENTSAURREKOAREN TRANSKRIPZIOA.

"Prentsaurreko honen deialdiak zerikusia dauka gobernu honek legegintzaldiaren hasieratik egiten ari den lanarekin, ahaleginak egiten ari baikara erabaki-prozesu guztietan kontrol- eta berme-tresnak areagotzeko; horrekin bilatzen dugu ikuspuntu sozialetik gero eta eskakizun handiago bat den zerbait, prozesu publikoen gardentasunarekin zerikusia duena eta, logikoa den bezala eta bereziki, kontratazioarekin zerikusia duten esparru guztietako gardentasunarekin.

Testuinguru horretan eta, horrenbestez, datorren saioan erabakiko dugu ezartzea, oro har, 12,5 milioi eurotik gorako kontratazio prozesuetan beharrezkoa ezin dadila kasuko lanbide elkargoen txosten bat eskuratzea.

Horrek suposatzen du legegintzaldiaren hasieratik egiten dihardugun lanaren aldeko jarrera erakustea eta urrats bat aurrera egitea. Logikoa den bezala horrek egoera bat sortzen du zeina, nire ustez, argitasun handiz ulertuko duzuen. Esleipen prozesu oso garrantzitsu baten aurrean gaude, zeina baita Nafarroako Ubideak ureztatuko dituen eremuak zabaltzea. Litekeena da aurrekontuaren ikuspuntutik obrarik garrantzitsuena izatea legegintzaldi osoan, eta badirudi ez lukeela logia handirik izanzen datozen asteetan 12,5 milioi eurotik gorako aurrekontua duten obrei buruzko zerbait onestea eta obra jakin hau horretatik kanpo uztea. Horrenbestez, Gobernuak kontratazio-mahaiari berari eskatuko dio aukera hori aintzat hartu eta azter dezan, hortik aurrera egokien iruditzen zaion erabakia hartzeko; gure iritziz, logikoena litzateke erraztea hau gerta dadila hemendik aurrera garatzen diren prozesu guztietan, eta gainera modu azkar eta arinean erabiltzea. Horrenbestez, espero dezagun Mahaiak, zeina guztiok dakigun bezala organo independentea baita, aintzat har dezala Gobernuaren jarrera hau eta horren arabera jardun dezala".

3. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN 2014ko OTSAILAREN 19ko ERABAKIA.

"Nafarroako Gobernuaren 2014ko otsailaren 19ko erabakia; horren bidez, kontratazio publikoaren arloko gardentasun-neurri bezala, gomendio bat onesten da, zeinaren arabera klausula administratibo partikularren orrietan berariaz sartuko baita Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61.3 artikuluan jasotako aurreikuspena.

Nafarroako Gobernuaren iritziz, berebiziko interesa dauka erabaki-prozesuetako berme-tresnak eta, bereziki, kontratazio publikoari buruzkoak, areagotzea, halako moduz non kudea-keta administratiboan gardentasunik handiena lortuko baita, hain zuzen ere gizarteak argiro exi-jitzen duen bezala.

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 21. artikulua di-oen bezala, lege horren menpeko entitateek, eta horien artean dago Nafarroako Foru Komunita-teko Administrazioa eta haren erakunde autonomoak, kontratistei tratamendu berdinzale eta ez baztertzaila eman behar diete, gardentasunez jokatu behar dute eta lehia murriztu eta faltsutu dezakeen edozein jokabide saihestu behar dute.

Bestalde, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Le-geak, zeinak berariaz aipatzen baititu kontratazio publikoaren arloko gardentasun-tresnak, 4. artikuluan, Gobernu Irekiaren ezarpena eraginkorra izateko funtsezko printzipioetako baten gi-sara, gardentasunaren printzipioa ezartzen du; printzipio horrek exijitzen du Administrazioak gardentasuna sartzeari kudeatzen dituen jarduera guztietan eta bere antolakuntzan, halako mol-dez non herritarrek ezagutzen ahalko dituzten haren erabakiak, nola hartzen diren, nola antola-tzen diren zerbitzuak eta nor diren haren jarduketan erantzukizuna duten pertsonak.

Nafarroako Gobernuak nahi du printzipio horiek indartuta gera daitezela zenbateko batetik gorako kontratuetan; gardentasunaren indartze hori datza, alde batetik, arauetan xede horretara-ko aurreikusitako tresnak berariaz erabiltzean eta, bestetik, herritarrei berariaz eta behar den gardentasunarekin informatzean tresna horien erabilerari buruz.

Horri dagokionez, kontratazio publikoaren arloan aurreikusitako bermeen esparruan, Nafa-rroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 60.1 artikulua zehazten du ezen 12,5 milioi eurotik gorako kontratuetan, Kontratazio Publikorako Batzordearen ordezkari bat egon dela kontratazio-mahaian.

Bestalde, lege bereko 61.3 artikulua ezartzen du kontratazio mahaiak, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatzen ahalko dituela, kontratuaren xedearekin zerikusia dutenak.

Aurreikuspen horrek, zeinak aukera ematen baitie kontratazio mahaiari beren lanerako lagun-tza izateko lizitatzailen proposamenak baloratzeko garaian, ahalmenezko egintza bat da, nola-nahi ere, kontratazio mahaiarentzat; izan ere, horietatik dira, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61.1 artikuluan xedatuaren arabera, besteak beste, lizitatzai-leek aurkeztutako eskaintza teknikoak baloratzeko eskudunak, bai eta kanpoko txostenak eska-tzen dituzten erabakitze eta esleipen-proposamena kontratazio-organoari aurkezteko ere.

Azaldutako guztia dela eta, egokitzen jotzen da kontratazio publikoaren arloko gardentasun neurri gisa ezartzea honako gomendioa: obra kontratuetan eta obra publikoen emakidetarako eta zerbitzuen emakidetarako kontratuetan, zenbatekoa 12,5 milioi eurotik gorakoa denean, be-rariaz jasoko da klausula administratibo partikularren orrietan Nafarroako Kontratu Publikoei bu-ruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61.3 artikuluan jasotako aurreikuspena, halako moduz non berariaz jasoko baita kontratazio-mahaiak, bere proposamena egin aurretik, egokitzen jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahalko dituela kontratuaren xedea dela-eta; horien artean, egoki-tzat jotzen bada, kontratuaren jardueraren sektorean egiaztatutako esperientzia duten teknika-riei, kasuko lanbide elkargoak berariaz izendatutakoei.

Horren indarrez, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseila-riak proposatuta,

ERABAKI DU

Lehena. Onestea, kontratazio publikoaren arloko gardentasun-neurri gisa, gomendio bat, obra-kontratuak eta obra publikoen esleipenerako eta zerbitzuen esleipenerako kontratuetan, zenbatekoa 12,5 milioitik gorakoa denean, BEZik gabe, berariaz jaso dadila kontrataziorako klausula administratibo partikularren orrietan, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61.3 artikuluan jasotako aurreikuspena.

Bigarrena. "Corporación Empresarial de Navarra, S.L.U."ri jakinaraztea aurreko idatz-zatian xedatutakoa, aplika dezan, dagokion moduan, Foru Komunitateko Administrazioari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 61.3 artikuluan jasotako aurreikuspena, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko VIII. tituluan jasotakoetan.

Hirugarrena. Erabaki honetan jasotakoa erabakia bera hartzen den egunetik aurrera izanen da aplikatzekoa.

Laugarrena. Erabaki hau jakinaraztea departamentuetako idazkaritza nagusi teknikoei eta "Corporación Pública Empresarial de Navarra, S.L.U."ri.

Iruñean, bi mila eta hamalauko otsailaren hemeretzian.

Nafarroako Gobernuko Kontseilari Idazkaria

F. Javier Morrás Iturmendi"

4. ERANSKINA. KONTRATAZIO MAHAIAREN 2014ko OTSAILAREN 10eko BILKURAREN AKTA.

Atarrabian, bi mila eta hamalauko otsailaren 10eko 11:45etan, INTIA, S.A.ren kontratazio mahaia bildu da, mahaikide guztiak bertan direla.

Bertaratutakoek AZALTZEN DUTE:

Lehena. Horretarako izendatutako mahaiaik, klausula administratibo partikularren orriko 33.2 klausulari jarraituz eskatutako txostenekin, lehiaketan onartutako partzuergoek aurkeztu dituzten 2. gutun-azaleko 2.1 eta 2.2 gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeari ekin diola.

Bigarrena. Nafarroako Ubideko 1. fasearen zabalpeneko ureztatuko den eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiaketarako lehiaketako klausula administratibo partikularren orriko IV. eranskinean jasotako balorazio-irizpideekin lortutako puntuazioen arabera aztertutako dokumentazioarekin kasuko puntuazioa jarri dela, ondoren ageri den erabakiko 3. puntuan ezarritakoa ezertan kendu gabe.

Horren indarrez, kontratazio mahaiaik

hauxe ERABAKI DU:

Lehena. Lizitatu duten partzuergoetako bakoitzaren 2. gutun-azaleko 2.1 eta 2.2 gutun-azaleko eskaintza teknikoen ebaluazioa puntuatzea, erantsitako taulan ageri diren balioen arabera. Ondoren irakurriko ditugu.

DOKUMENTAZIO TEKNIKOA	ACCIONA-IRIDIUM PARTZUERGOA	OHL-SGAB PARTZUERGOA
Obren exekuzioa (gehienez ere, 70 puntu). 2.1.1 gutun-azala	56,5	59,25
Obren ustiapena (gehienez ere, 130 puntu). 2.1.2 gutun-azala	110,75	120,75
Sozietate emakidadunak funtsak lortzeko konpromiso-maila. (Gehienez, 100 puntu). 2.2 gutun-azala	72	99
GUZTIRA (gehienez, 300 puntu)	239,25	279,00

Bigarrena. Aurreko ebaluazioa kontratazio organoari bidaltzea, emakida-kontratua arautzen duen klausula administratiboaren orriko 33. klausulari jarraituz.

Hirugarrena. Jarraitutako prozedura aurkeztea Nekazaritza Ingeniarrien zein Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarrien Lanbide Elkargoei eta Ekonomialarien Elkargoari, Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren bitartez, jakinarazitako irizpide orokorraren arabera eta klausula administratibo partikularren orriko 33.2 klausulan ezarritakoari jarraituz.

Laugarrena. Behin txosten horiek kontratazio mahaiairen esku daudenean, 2.1 eta 2.2 gutun-azaleko eskaintza teknikoen puntuazioarekin batera bidaliko zaizkio kontratazio organoari, onets ditzan; hori guztia emakidarako lehiaketa arautzen duen klausula administratibo partikularren orriko 33. klausulari jarraituz.

Bosgarrena. Ondoren, lizitatzailerei jakinaraztea 3. gutun-azala irekitzeko data, eguna eta ordua, bai eta aurreko puntuak direla eta egin diren jarduketak ere.

5. ERANSKINA. LANBIDE ELKARGOEN TXOSTENEI BURUZKO ONDORIO NAGUSIAK.

Eranskin honetan, Nekazaritza Ingeniarien Lanbide Elkargoari, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari eta Ekonomialarien Lanbide Elkargoari 2. gutun-azala dela-eta eskatu zaizkien txostenei buruzko ondorio nagusien laburpena ematen dugu.

a) Nekazaritza Ingeniarien Lanbide Elkargoa.

Emandako puntuazioa "ez da mugatu eskaintzen balorazio erabatekoa edo orokorra egi-tera; izan ere, klausula administratibo partikularren orriko III. eta IV. eranskinetan berariaz ezarritako irizpide, ponderazio eta parametroen aplikaziotik heldu da, eta ez da bestelako irizpide edo azpi-irizpiderik aplikatu".

"2.1 gutun-azalari buruzko balorazioa, kontratazio mahaiak onartutako bi partzuegoetako bakoitzari buruz egindakoa, ez da arbitrarioa; izan ere, klausula administratibo partikularren orrian ezarritako irizpideen aplikaziotik heldu da".

b) Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoa.

- Balorazio irizpideei dagokienez.

"Horrenbestez, aztertutako dokumentazioari erreparatuta, nabarmena dirudi ezen INTIAK zorrotz bete dituela legezko baldintzak, ebaluazio ez-automatikoko irizpideak ezartzeko orduan, bai eta argitaratzeko eta balizko lehiakideei jakinarazteko orduan ere.

Bestetik, txosteneko puntu horri amaiera emateko, bidezkoa da adieraztea ezen INTIAK lehiaketarako prestatutako dokumentazioan "Lehiarako Batzorde Nazionalak gomendatutako irizpideak errespetatzen direla".

- 2. gutun-azala baloratzeko INTIAK jarraitutako prozedurari dagokionez.

"Horrenbestez, gure ustez jarraitutako prozedurak oinarri bat badauka, zeina ez baita arbitrarioa, eta, horrenbestez, bere logika teknikoa dauka".

c) Ekonomialarien Lanbide Elkargoa.

"2.2 gutun-azala baloratzeko INTIAK jarraitutako prozeduraren ebaluazioari buruzko errekerimenduari dagokionez, gure ustez prozedura hori arrazoizkoa eta sendoa da, eta orrietan bilatzen ziren helburuen betetzeari erantzuten dio".

"2.2 gutun-azala baloratzeko kontratazio mahaiak jarraitutako irizpideei dagokienez, ulertzen dugu oinarri logiko tekniko bat duten araei erantzuten dietela eta ez direla arbitrarioak".

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**"Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipena" izeneko Kontuen Ganberaren behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak.**

"Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipena" izenburupean Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostena.

14. orrialdeko lehenengo lerrokadari eta behin-behineko txosten horretako bigarren gomendioari dagokionez, honako alegazioak aurkeztu ditugu:

Txosteneko 3. eta 4. puntuetan (13. orrialdea), honakoa ageri da:

"Hirugarrena. Kontratazio-mahaiak kanpoko txosten teknikoak eskatzearena Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean aurreikusitako ahalmen bat da, prozedura honetako orriek jada jaso egiten dutenak. Eskari hori egin beharra dago Mahaiaren ekimenez eta berak erabakita, beharrezkotzat jotzen duenean, funtzionamendurako daukan autonomiaren barruan.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago mahaia jada aukera horretaz baliatua zela, zeren eta eskaintzaren alderdi ekonomikoak baloratzeko kanpoko laguntza eskatu baitzuen.

Laugarrena. "Prozedura hau dela-eta azaldutako egitateen zerrendari begiratuta, ondorioztatzen da mahaiaren erabakia, zenbait lanbide elkargori txostenak eskatzeari dagokionez, hartu zela "Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren bitartez, jakinarazitako irizpide orokorraren arabera eta klausula administratibo partikularren orriko 33 klausulan ezarritakoari jarraituz".

Letra etzanez transkribatutako testua zehatz-mehatz dagokio 4. eranskinean jasotakoarekin.

Kontratazio mahaiaren 2014ko otsailaren 10eko bilkuraren aktako 3. puntua.

Azaldutakotik eta txostenak jasotzen duen dokumentaziotik argi ondorioztatzen da kanpoko txostenak eskatzea kontratazio mahaiaren beraren ekimenez eta erabakiz egin zela, bere funtzionamenduraubidearen esparruan eta kontratazio-orrietan beraietan oinarrituta; halaber, ondorioztatzen da uneoro Administrazioak organo kolegiatuaren autonomia eta independentzia errespetatu zituela, eta ezin zaiola Administrazio horri egotzi inongo unetan adierazi izana kontratazio mahai batek "nola jardun behar duen" edo "zein txosten mota eskatu behar dituen".

Azaldutakoa dela eta, proposatzen da 14. orriko lehen lerrokada eta bigarren gomendia kentzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an.

José Javier Esparza Abaurrea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilaria

Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruz Kontuen Ganberak egindako behin-behineko txostenari INTIAK aurkeztutako alegazioak

SARRERA ETA AURREKARIAK.

Nafarroako Ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipenari buruz Kontuen Ganberak igorritako behin-behineko txostenari dagokionez, INTIAK, ezarritako epearen barruan, honako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ditu:

ALEGAZIOAK

4. orrialdeko laugarren lerrokada: Testu berria

"Azpiegituraren finantzaketa "itzaleko bidesaria" izeneko sistema erabiliz egiten da".

Proposatzen da " ...itzaleko bidesaria izeneko sistema" testuaren ordean honakoa erabiltzea: "obra publikoaren emakidarako kontratuaren formula".

Prozedura horren izen zuzena obra publikoaren emakida-kontratuarena da, ez itzaleko bidesaria-rena. Itzaleko bidesaria ez dago definituta kontratazioari buruzko gure araudian, baina erabiltzen den testuinguru gehienetan ulertzen den bezala, ez da ahokutzen kasu honetan hautatutako formularekin. Besteak beste, itzaleko bidesari batean Administrazioaren ordainketa diferituak ezartzen dira, baina ez dira erabiltzaileak inplikatzeko ordainketa diferitu horietan; kasu honetan, ordea, erabiltzaileak ere sartzen dira kasuko kanona ordaintzearen bitartez.

14. orrialdeko lehenengo lerrokada: Guztia kentzea proposatzen da.

Kontratazio mahaiaren aktek argi uzten dute mahaiak erabateko independentziaz eta autonomiaz jardun zuela, eta haren eginkizun eta eskumenak ez zirela inolaz ere baliogabetu. Mahaiaren erabakiak hartu ziren, aktetako testuak berak dioen bezala "orrian ezarritakoaren arabera eta harekin bat", eztabaidetan nahitaezko erreferentzia bakartzat hartuta orrian bertan ezarritakoa eta kontratazio publikoari buruzko araudiaren betekizunak.

– 15. orrialdeko hamargarren puntuko lehen lerrokada: Lerrokadaren azken zatia kentzea proposatzen da: "... baina egoera konplexuak eragin zitzaizkeen".

Lanbide elkargoen txostenek finkatu izan bazuten Mahaiaren jarduketak ez zirela egokiak sortuko ziren egoerak, nolahi ere, emakidarako kontratuaren esleipena baino lehen aztertuko ziren; hori dela eta, ulertu beharra dago txosten horiek berme handiagoak ematen dituztela, hain zuzen ere guztiz seguru egoteko emakidarako kontraturako proposatzen den esleipena guztiz egokia dela.

15. orrialdeko bigarren gomendioa. Guztia kentzea proposatzen da.

Kontratazio mahaiaren aktek argi uzten dute mahaiak erabateko independentziaz eta autonomiaz jardun zuela, eta haren eginkizun eta eskumenak ez zirela inolaz ere baliogabetu. Mahaiaren erabakiak hartu ziren, aktetako testuak berak dioen bezala, orriaren arabera, "orrian ezarritakoaren arabera eta harekin bat", eztabaidetan nahitaezko erreferentzia bakartzat hartuta orrian bertan ezarritakoa eta kontratazio publikoari buruzko araudiaren betekizunak. Mahaiaren otsailaren 10eko akta irakurrita, non 4. eranskina jasotzen baita, baieztatu duguna eratoritzen da argiro. Halaber, agerikoa da, kontratazio mahaiak, eztabaidatu eta erabaki aurretik, ezagutzen dituen iradokizun eta jarraibide guztiak aintzat hartu eta aztertzen dituela, Kontuen Ganberatik nahiz Nafarroako Gobernutik, Parlamentutik, Arartekotik zein beste edozein erakundetatik etorri, botere legegilea, exekutiboa zein judiziala izan, foru erkidegoaren mailakoa, nazionala, Europakoa zein nazioartekoa izan.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak eta INTIAko zuzendari kudeatzaileak txostenari buruzko alegazioak aurkeztu dituzte. Lehenengo idazkian, bi alegazio daude, eta bigarrenean lau alegazio, zientetan kontseilariak aurkeztutakoaren antzekoak diren bi sartzen baitira.

INTIAren lehenengo alegazioan, proposatzen da "Azpiegituraren finantzaketa "itzaleko bidesaria" izeneko sistema erabiliz egiten da" testuaren ordean honakoa erabiltzea: "obra publikoaren emakidarako kontratuaren formula".

Egiazta daiteke ezen alegatutakoaren aurreko txosteneko lerrokadan obra publikoaren emakidarako kontratu gisa definitzen dela, eta alegatutakoan, berriz, finantzaketa nola egiten den aipatzen dela.

Bereizkeria teknikoetan sartu gabe eta egia bada ere "itzaleko bidesaria" adierazpidea ez da goela kontratazioari buruzko araudian definituta, egia da, era berean, gizarteak onartutako adierazpidea dela, azken urteetan oso ohikoa izan dena. Sistema horretan, azpiegitura publikoak enpresa pribatu batek egiten ditu, eta Administrazioak, zenbait urtez, kanon bat ordaintzen du. Kanon horretan, hiru kontzeptu jaso ohi dira: kalitatea, kontsumoa eta mantentzea. Gure ustez ordaintzea horietatik zati bat lursailen jabeek ordaintzeak ez duela sistema aldatzen, eta, hartara, "itzaleko bidesaria" dela jo daitekeela.

Bestetik, izena bata ala bestea izatea ez da funtsezkoa, egindako lanaren azterketari dagokienez.

Gainerako alegazioei dagokienez, adierazi beharra daukagu Nafarroako Kontuen Ganberaren iritziei edo gomendioei dagozkiela, eta haiek berretsi egiten ditugula.

Horrenbestez, alegazioak txostenari gehitu eta txostena behin betikotzat jotzen dugu.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

